



KULTURA SAILA

Kultura, Gazteria eta
Kirol Sailordetza
Gazteria eta Gizarte Ekintza
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Cultura,
Juventud y Deportes
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria

Bedaio. Tolosa

- ✓ **Lekua:** Bedaio. Tolosa (Gipuzkoa) <http://www.tolosakoudala.net> <http://www.bedaio.com>
- ✓ **Lan-mota:** Ondarea errekeratzea
- ✓ **Helburua:** Bedaioko garbitokia eta ur-aska errekeratzea, bai eta bertara iristeko zubia eta bidea ere.
- ✓ **Data:** uztailaren 1etik 14ra // uztailaren 16tik 29ra
- ✓ **Adina:** 18-26 urte
- ✓ **Plazak:** 22
- ✓ **Esparrua:** Nazioartekoa
- ✓ **Hizkuntza:** Ingelesa. (Ingelesean ondo hitz egiten jakin behar da.)
- ✓ **Kuota:** 72 €

BEDAI OREN DESKRIBAPEN LABURRA

Bedaio Tolosako nekazari-auzo bat da, Gipuzkoako ekialdean kokatua, guztira 24.212 m² eta 89 biztalde dituena. Aralar mendilerroaren magalean sakabanatutako hainbat baserri osatzen dute auzoa, Balerdi kare-harrizko mendi ikusgarriaren oinetan. Tolosako gainerako lurraldeetatik guztiz aparte dago, urruneko goi-bailara benetan eder batean, Aralarreko Parke naturalaren barruan. Flora eta fauna dibertsitate handiko tokia da.

Bedaioko behealdean Euskal Herriko arkitektura tradizionalaren erakusgarri eder zenbait daude. Zaharrenak eta nabarmenenak: *Sarobe Berri* eta *Zugasti Barrena*, zurezko egitura zaharrei eusten diena; *Gurbil Haundi*, Gipuzkoako baserri handienaren katalogazioa duena.

Goialdean, Bedaioko Andrea Mariaren elizaren inguruan biltzen diren hainbat eraikin ditugu. Eliza txikia da, xumea, harlanduzko dorrea duena, *Nagusí Etxea* XVIII. mendeko jauretxearen ondoan. Nagusi Etxeak armari zaharra kontserbatzen du oraindik, eta bertan izango dute ostaldea auzolandegoko boluntarioek.

Bedaio oso gertu, Nafarroako mugan, mikelate-etxe zaharren hondakinak daude. Bi probintzien arteko kontrabandoa kontrolatzen zuten bertan, XVIII. mendean bukatu geroztik.

Tolosari dagokionez, bertako udalak antolatu baitu auzolandegi hau, esan behar da 17.829 biztanle dituela, eta 37.9 km²-ko eremua. Tolosa Gipuzkoako hiriburua izan zen, eta Donostiatik 26 km-ra dago. Kultura bizi-biziko udalerrria da, tradizio asko bizirik gordetzen dituena, esaterako bertako inauteri ospetsuak (Gipuzkoako zaharretakoak) eta abesbatzen nazioarteko lehiaketa. Gastronomía dela eta, zein utzi aipatu gabe asteroko azoka. Larunbatero biltzen dira Zerkausiko azokan eta beste plaza batzuetan inguruko nekazari eta abeltzain asko, beren kalitateko produktuak saltzeko. Tolosan, gainera Konfiteri Museoa dago, Gorrotxategitarren familiak 1680. urtetik hona bere kutixiak egiteko erabili izan dituen lanabesak erakusten dituena.

<http://www.tolosakoudala.net> <http://www.bedaio.com>

Estekak ikusteko sakatu "Ctrl" eta egin klik testuaren gainean.

LANAREN DESKRI BAPENA

Bedaio Aralarren barneratzeko bidegurutzea izan da, eta bertako herritarrek aspaldi egindako garbitoki bat du, emakumeek bertan lixiba egiteko baliatzen zutena. Ez bakarrik garbiketa egiteko, solaserako eta elkartzeko gune garrantzitsua ere bazen Bedaion sakabanatutako baserrietan eta Bedaio inguruko beste herrietan bizi ziren andre askorentzat.

Boluntarioen lana izango da garbitokia errekuiperatzea, erreka baten urek hornitzen dutena. Horrekin batean inguruko elementuak ere berreskuratuko dira: erreka baten ertzak, garbitokirako bidea eta zubia, eta ur-aska polit eta zahar bat.

Nahiz eta ondare apal eta xumea izan, elementu hauek xarma berezi bat dute, alegia, lehengo herri-eraikin zaharren edertasuna, kondaira eta tradizio ugari dituen paraje liluragarri batean gainera.

ANIMAZIO-JARDUERAK

Animazio-taldeak proposatuko dituen ekintzen helburua izango da auzolandegian parte hartuko dutenen arteko harremanak bultzatzea eta Bedaioko herritarrek eta inguruko lurraldea hobeto ezagutzea: txangoak inguruko herrietara (Amezketara, Alegia...); Bedaioko XVI. mendeko errota zaharra ezagutzea, gazta era tradizionalan egiten den baserriak bisitatzea, eta irtenaldiak autobusez Tolosara.

Gainera zenbait ekintza prestatuko ditu Euskal Herriko kultura eta ohiturak ezagutarazteko (kirol-jarduerak, jolasak, txangoak, kultur bisitaldiak...).. Animazio-taldeak kontuan hartuko ditu boluntarioen proposamenak. Ekintza horiek guztiak arratsaldero eta asteburuetan egingo dira, eta bertan auzolandegiko kide guztiek parte hartuko dute.

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO GAUZAK

- Lo egiteko zakua
- Burkoa (behar baldin baduzu)
- Laneko arropa eta eskularruak
- Kapelaren bat eguzkitarako
- Berokiak eta euritako arropak
- Mendiko oinetakoak eta kirol egitekoak
- Bainu-jantzia
- Bizkar-zorroa edo motxila txikia, txangoetarako

AUZOLANDEGIRA ERAMAN BEHARREKO AGIRIAK

Parte hartzaile bakoitzak eraman beharko du:

- NAN edo atzerritar-txartela edo pasaportea.
- Osasun Txartel Indibiduala
(Europako Osasun Txartela, Europako batasuneko beste herrialdeetatik datozenek).

AUZOLANDEGIA ETA LOTAKO TOKIA NON

Auzolandegia non dagoen: Bedaio auzoaren goialdean, Tolosatik 17 km-ra.

Lotako tokia: Nagusi Etxea, XVIII. mendeko jauretxea, Bedaioko goialdean. Sukalde zabala du, egongela handi bat eta zazpi gela, bainu eta dutxa banarekin. Geletan literak eta lastairak jarriko dira.

NOIZ BERTARATU

Txanda bakoitzaren lehen egunean, **18:00etan, Tolosako Udaletxean (Plaza Zaharra, z/g)**. Auzolandegian parte hartuko duten gazteak Tolosatik Bedaiora eramango dituzte, Tolodako udaletxean harrera jaso eta gero.

Arratsaldeko 18:00etarako iritsi ezin denak, aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, eta hurrengo 24 orduetan, bederen, ailegatu beharko du Bedaioko auzolandegira.

NOLA IRITSI TOLOSARA

[Tolosa kokatzeko mapa](#) (Gipuzkoa) [Nola iritsi jakiteko argibide gehiago](#)

Estekak ikusteko sakatu "Ctrl" eta egin klik testuaren gainean.

Donostiatik Tolosara:

Autobusez: TST konpainia (Tranvía Tolosa San Sebastián), **autobus berdeak** (ez dira Donostiako Amarako autobus-estazio nagusitik irteten):

- Tel: 943 36 17 40

-Donostiako geralekuak:

Gipuzkoa plazan eta Zubieta kalean, Zaragoza plazaren aurrean.

-**Astegunetako ordutegia:** ordu eta laurdenetan eta laurden gutxiagotan, 7:45etik hasi eta 20:45era arte.

-**Bidaiaren iraupena** Tolosaraino: 50 min g.g.b.

-**Txartelaren prezioa:** 1,85 €.

Trenez: RENFEren Donostiako geltokia, Frantzia hiribidea z/g.

-Renfe <http://www.renfe.es> Tel: +34 902 24 02 02 / +34 902 24 34 02

-Tolosan, "Tolosa erdia geralekua" izenekoa jaitsi behar da.

Donostiatik pasatu behar izan gabe ere joan liteke Tolosara, baina gutxi dira Tolosan geratzen diren ibilaldi luzeko trenak.

Bestalde, Madril-Donostia bidea egiten duten "ALSA-Continental Auto" konpainiako autobus **batzuek** Tolosan geldialdia egiten dute.

AUZOLANDEGIA NOIZ AMAITZEN DEN

Auzolandegia azken egunean amaituko da, gosaria hartu eta gero, goizeko 09:00-10:00 bitartean.

ASEGURUA

Eusko Jaurlaritzak gazte bakoitzari **istripurako eta erantzukizun zibilerako aseguru**a egingo dio. Dena den, gaixotasun berezirik edo ahalmen-urritasunik edukiz gero, horren berri eman behar zaio **Eusko Jaurlaritzari**, Jaurlaritzak gazteak behar dituen estaldurak sar ditzan aseguru polizan.

Gazte bakoitzak bere **osasun-txartela** ekarri behar du auzolandegira.

HARREMANETARAKO TELEFONOAK ETA HELBIDE ELEKTRONIKOA

Eusko Jaurlaritza. Gazteria Zuzendaritza:

- Doako tel: **900 33 88 22** (astelehenetik ostiralera: 9:00 - 18:00)
- helbide elektronikoa: gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ARAUAK

Auzolandegian izena eman baino lehenago, komenigarria da auzolandegietako arauak ezagutzea. Ikusi <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean (ikusi Auzolandegiak - Arauak).

PLAZARI UKO EGITEA ETA KUOTA ITZULTZEKO ESKATZEA

Informazio guztia <http://www.gazteukera.euskadi.net> webgunean duzu (ikusi Auzolandegiak - Plazari uko egitea eta ordaindutako kuotaren itzulketa eskatzea izeneko atalean).